

**Elkartasunaren aldeko apustua**

**EROSKI-K ETA HAREN BEZEROEK 9.000 TONA  
INGURU JANARI EMAN DITUZTE BEHARREAN  
DIREN FAMILIENTZAT**

- **Kopuru horretatik 6.000 tona inguru EROSKI 'Ez alferrik galdu' programaren barnean emandako janaria da; horrela, bermatzen da dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk, baizik eta gizarte erakundeei emango zaiela**
- **2015eko elkartasun kanpainan, 3.000 tona janari baino gehiago bildu ziren.**

**Elorrio, 2016ko apirilaren 19a.-** [EROSKI](#)k eta haren bezeroek 9.000 tona inguru janari eman dituzte behar gehien duten kolektiboentzat 2015. urtean. Horretatik, 6.000 tona inguru EROSKI eman du 'Ez alferrik galdu' programaren barnean; programa horren bitartez, bermatzen da EROSKIren dendetan ez dela alferrik galduko jateko modukoa dagoen janaririk eta denda bakoitzaren hurbilean diren gizarte erakundeei emango zaiela.

*"Hogei urte dira EROSKI elikagaiak erantzukizunez kudeatzeko politika hasi zuela gizarte erakundeekin batera. Horrez gain, aurrendariak izan gara Espainian geure sektorean freskoak maiztasunez ematen eta gure supermerkatu eta hipermerkatu sare guztian janaririk ez alferrik galtzen",* esan du EROSKIren Gizarte Erantzukizuneko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

**Gizarte erantzukizuna lantzen duten ehun bat erakunderekin elkarlanean**

'Ez alferrik galdu' programa gauzatzeko, EROSKI lanean aritu da Espainian gizarte erantzukizuna lantzen duten ehun bat erakunderekin. Kooperatibak protokolo bat prestatu du emandako elikagaien segurtasuna bermatzeko. Elikagai freskoekin, esaterako, zenbait neurri hartzen ditu hotz-katea ez dadin eten ezta janariak entitate hartzailearen eskutara iristen direnean ere; izan ere, entitate horrek bermatu egin behar du baldintzak zorrotz zaindu direla bai garraioan eta bai beren biltegietan.

EROSKI baldintzarik onenetan dauden produktuak soilik eskaintzen dizkie bezeroei. Elikagai freskoren batek freskotasuna zertxobait galdu badu edo ontziren bat ez badago behar bezala (kolpetxo bat duelako, adibidez, edo bilgarria apurtu zaiolako), kendu egiten ditu saltokietatik, eta programa honetan parte hartzen duten erakundeei ematen dizkie.

---

**EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

**CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)



EROSKIk emandako elikagai guztiak beti daude iraungitze edo kontsumitze dataren barnean, eta kontsumitzeko egoera ezin hobean.

### **Hogei urte dira EROSKI eta Elikagaien Bankua lanean ari direla elkarrekin**

'Ez alferrik galdu' programaren bitartez 6.000 tona janari biltzeaz batera, beste 3.000 tona bildu dira 2015eko kanpainen bitartez EROSKIren saltokietan, Vegalsan eta Caprabon, Elikagaien Bankuaren alde. *"EROSKIn ohikoa denez, konpromiso honetan parte hartu nahi izan dugu, eta kontsumitzaileek emandako kiloei guttizkoaren zati bat batu diogu gehigarri gisa. 1996an hasi ginen Elikagaien Bankuari laguntzen, Bizkaiko Elikagaien Bankuak eta kontsumitzaileek berek proposatuta. Hala, hogei urte dira janaria biltzeko kanpainak egiten hasi zirela EROSKIren dendetan"*, esan du Alejandro Martinez Berriochoa.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

##### **CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)